

danbolin²⁵

2023 iraila

274^{ak.}



**ane aranburu
ametsak egi bihur
daitezkeela erakusten
diguten pertsonak
badira**



675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, behe - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

txoko
taberna

erdikalea 3
tel. 943 147 196



Ekain Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste barruan
06:30/13:30
16:30/20:30

Asteburutan
06:30/14:30
Arratsaldez itxita

By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



943 147 657



GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK

telf. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



URRIA
1 2 3 4 5
6 7 8 9 10 11 12
13 14 15 16 17 18 19
20 21 22 23 24 25 26
27 28 29 30 31
ABENDUA
1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31

Egun osan irekita Marti goizetik 22:00etan Irakila 18:00etatik aurrera Itxita



Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGURUAK

Gesalaga kalea, 22 behe 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriaarin@asesoriaarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicinicaldental@gmail.com
ZURRIE ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 797
IDIOIA ECHIBERRIA RENOBLES COLEG. 868

Telf.: 943 14 78 28



— 943 29 08 99 —

Toribio Altzaga 20 - 22 20740 Zestoa



Toribio Altzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com



kutxi eta
pentsuak

www.laiakdenda.com
tfnoa: 943148134

laiak.
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.




Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341



Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269



Narkis Balentziaga, 2
20749 Arroa (Gipuzkoa)

T +34 943 148 306
F +34 943 897 380

bakun@bakun.eus
www.bakun.eus



UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73



foru plaza, 4
tel. 943 147 095



Aranburu
Landetxea
eta
jattetxea
943 148 005

Buruhandien erakarpena

Festetan, nire *Whatsapp* profilean, bi buruhandi historikorekin agertu naiz. Baina zer harreman dute gure buruhandiek Danbolinek ale honetan jorratzen dituen gaiekin? Dirudiena baino handiagoa, nire ustez. Buruhandiek, oro har, nolabaiteko atzerakoa edo beldurra eragiten dute, batez ere umeei: ohikoa ez den itxura dutelako, jo egiten dutelako eta gehienetan pertsonaia komiko eta marjinalak irudikatzen zituztelako (gure herrian behintzat hala zen duela urte gutxira arte). Atzerakoa eragiten duen elementua da, bai, baina aldi berean erakarpen arraroa du, festaren funtsezko elementua izateraino (orain ez hainbeste). Bulegoan ditudan bi buruhandi historiko hauei begira-begira egon ohi dira askotan eskola-ume txikiak, liluratuta, erabat erakarrita. Baserriko bitzta ere, buruhandiak festetan bezala, funtsezko elementua zen industrializazioak gauza atzeratua eta marjinala bihurtu zuen arte. Baina ezin izan zuten erakargarritasun arraro hori ezabatu, eta horregatik, Ane Aranburu bezalako pertsonak landa gunearen berpizte berri batean inplikaturik daude, Amillubi proiektuan, esate baterako. Bere biografiako alderdi franko erakusten dizkigu ale honetan Anek.

Gauza berdintsua esan daiteke euskarari buruz: garai batean atzeratutzat eta trakestzat jotzen zena (gaur egun ere jende askok hala ikusten du), etengabeko ahalegin-esparru da gure gizartean. AEK-ko lagunek azalduko digute urte mordo hauetan egin duten ahalegina, euskara buruhandi zatar bat izan ez dadin, euskara itsusi eta baldar, beldurra ematen duen zerbait izan ez dadin, baizik eta zerbait baliotsua eta erakargarria. Erronka handiak ditugu gaurko gizartean euskalgintzan; ea zer argitzen diguten datozen orrialdeotan.

Hirugarren gaia *danbolin* bera dugu: hamar urte webgunea sortu zela. Egunerokotasuna, freskotasuna eman zion webak *danbolini*, lan gehiago ere bai, noski, eta, batez ere, kolorea (nahi adina argazki eder jar zitezkeen euskarri berrian). Koloreari, bizitasunari, txikiarekiko eta baztertuekiko enpatiarik... horrelako gauzei egin nahi izan diegu keinu argazki zein artikuluko hauetan. Hitz bitan, buruhandien erakarpinari. On egin!

fernando argallus



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabazaitela: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)
722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS
Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTEI, URKO CANSECO, SARA MACSUTANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ICSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOETXEA
Kolaborabazaitela/auzenbazaitela baldex: NAGORE TELLERIA, JON ARTANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ICSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE
Diseinua eta markeabazaitela: ENEKO ARISTEI
Inprimabazaitela: GERTU (OÑATI).
Lege gordailua: SS-1108/2000
ISBN: 1576-9429



HODEI arteCIK

Isilik goaz. Gu hirurok eta beste ia 400 lagun. *Katxarro* erraldi batek garamatza airean, AIRBUS 350-900 du izena. Mutu goaz, baina 'enbidoa' jo dit zestoartutako azpeitiarrak; euki Arrue!

Familia eta lagunak jiran pasa ditugu oporrak. Orain itzulera, inork gutxi ezagutzen gaituen lekura. Ederra ere bada sentazioa. Gu hartu gaituen Amerikako ertz honetan beste patxada bat deskubritu dut. Beste bake bat.

Esango nuke bakarra naizela abioitzar honetan, iritsiko garen edo ez, duda duena. Zortzi orduz, 12000 metro-tan hegan. Gero eta gutxiago gustatzen zait hegazkinez bidaiatzea. Han behean dena urdina ikusten da.

Atlantikoa ez da amaitzen. Joder! Derrigorra al du aurreko señoarak bost minutuero jaiki eta goiko mailetak irekitzen jardutea? Eta komunerako erromeria hori? Denak ados jarri al dira batera joateko?

Herriko bati gertatua akordatu zait. Izenik ez dizuet esango. Gizon puska zen, handia bezain ona. Lan-bidaia zela eta hegazkinera igo da, lasaitasuna kanpoan lagata. Halako batean zer-eta pilotua kabinatik atera eta zuzenean doa beragana. Serio begiratu eta esan dio:

— Jauna: jaiki zaitez mesedez eserleku horretatik eta bestaldean eseri zaitez. Hegazkinaren oreka mantentzeko derrigorra dugu.

Kabroia pilotua! Litroka irentsi zuen txistua gure gizon-kote gizajoak.

Eta Estatu Batuez zer esan? Kontradikezioz betetako lurraldea iruditu zait. Uste dut sekula ikusi ditudan gauzarik ederrenak eta zatarrenak bertan aurkitu ditugula. Konparazio batera Israelgo banderak dituzte inguruko etxeetako atarrietan. Aldiz bertan bizi den jendea maitagarria iruditu zaigu.

Ez dakit... batzuetan leihotik ikusten dudana ozeanoaren aurrean bezain txiki sentitzen naiz eguneroko paradoxak ulertzeko. Ba al dakigu zer norabide daramagun? Nor da munduko gidari? (eta nor da hegazkin honetako pilotua!?)

2001ean izan zen. Hirugarren mailara igo ginen urte hura bai izan zela *Espazioko Odisea* guretzat (Oiartzun, Sondika...). Talde hark bazuen kapitain-pilotu aparteko bat. Taldekide bikaina. Astero-astero exenplua eman eta denon errespetua irabazi zuena. Herritik kanpo dabil hura ere. Jon Lizaso *Ipintza*, 'Kapi'. Gogoratze al dekan bat barre eta zenbat negar egin genuen urte hartan? Besarkada bana, Ameriketako partetik.

gaizka kortadi

pintada.

LILI. HAMAIIKA URTE,...HAMAIIKA ISTORIO POLIT. Itziar Ezenarro Zumeta, 54 urte. Getariarra izatez, baita zestoarra sentimenduz ere.

Lili denda, abentura modura hasi eta abentura, istorio benetan oso polit batean bihurtu dena. Hamaika urtetan, hamaika istorio polit.

"Zumetatarrak", Itziar eta Larraitx, Larraitx eta Itziar, lehengusuak, izan gara, bezeroekin batera, "Lili" osatu dugunak. Beti ilusioz, gogotsu, bihotzez; gauza ederrak, momentu ederrak bezeroekin partekatuz, "Edertasunari forma ematen" aritu gara.

Bitarte horretan, gure bizitzek ere aurrera egin dute, momentu gazi-gozoz beteta... "bizitza" da, azken finean. Biok "daukagun GUZTIA" eman dugu.

Zestoa sentitu, gozatu, maitatu egiten dugulako, geure egin dugu "Zestoa Zuretzat" Zestoko merkatarien leloa.

Bizitza kapituloz osatuta dago, ordea, eta kapitulu hau bere amaierara iritsi da. Bide berriak egiten segiko dugunaren esperantzaz, eskerrik asko, bihotz bihotzez.

itziar ezenarro zumeta



HERRIRIK EZ KULTURARIK GABE

Beste behin, aspaldian hartutako ohitura errepikatu dut, nabigatzailean "kulturklik" idatzi, orrialdea arakatu eta gaur ere ez... Iritsiko ote da eguna?

Joxe Mari Agirretxe "Porrotx"ek podcast batean esandako esaldi bat eka- rri nahi dut gogora: "ez dago kultur transmisio- rik, kultur plangintzarik gabe". Askotan sinetsi izan dugu kultura natu- ralki transmititzen dela, ia oharkabean, familiatik edo komunitatetik be-



launaldi berrietara igaroz. Baina horrekin nahikoa al da? Nire ustez ez. transmisioa ez da espontaneo, lan kolekti- bo eta planifikatu baten emaitza baizik. Horretarako, or- dea, egiturak, estrategiak, denbora eta baliabideak behar ditugu.

Zestoako herritarrok, oro har, oso parte hartzaileak gara kultur ekitaldietan; ikusi besterik ez dago Musika Banda- ren kontzertuak, Itxaropena dantza taldearen emanaldi- ak, Antzerki asteak, Txokoko pilota partidek, pasa berri den alardeak, etab. zenbat herritar biltzen dituzten. Go- gotsu gaude artisten lanak ikusteko, baina tamalez, asko- tan, inguruko herrietara joan behar izaten dugu. Zenbaite- tan, herrian dauden kultur ekintza gutxiak, egun eta ordu berean ere jarri izan dira. Hau ekiditeko asmoz, kultur plangintza bat izatea aproposa dela deritzot, hitzordu guz- tietara iritsi eta gozatu ahal izateko.

Honez gain, herrian ekitaldiez gozatzeko espazio bat behar dugula iruditzen zait, baliabide ezak emanaldi bat guztiz aldatzen baitu. Adibide bezala jarri nahiko nituzke Musika bandaren Santa Zezili eta urteurren kontzertua eta Txis- tulari alardea. Eguraldi txarra medio, kontzertuei beste le- ku bat bilatu behar izan zitzairen, akustikoki galera izan zuten eta prestatuko lana %100ean ezin izan zen disfruta- tu; ikusleak ez ezik, musikariak ere zapore gazi-gozoarekin gelditu ziren.

Kultura ez da gastu bat, inbertsioa baizik, herriaren norta- sunean eta komunitatearen kohesioan eragiten baitu. Iri- tsiko al da Zestoan kultur areto duin eta kultur programa- zio bat izango dugun eguna? Bitartean, eguneroko ohitu- rarekin jarraituko dut, eguna noiz iritsiko.

URRESTILLATIK ZESTOARA

Jaiotzen denetik pertsona bere lekuaren bila ibiltzen da munduan, eta misterio bat da leku hori non agertuko zaion, noren ondoan edo- ta zein zereginetan: horixe da bizitzaren abentura, abenturarik ede- rrena.

Nirea Urrestillan hasi zen, eta (momentuz) Zestoan amaitu dut. Ez dira kilometro asko, baina tarte horretan

egin dut mugimendu franko nire lekuaren bi- la. Gaur Zestoan bizi den Aristik zerikusi gu- txi duela esango nuke Urrestillan ama Lurde- sek munduratu zuen Pa- kito harekin.

Hemezortzi urterekin



Bilbora joana karrera ikastera, gozakaitza egin zi- tzaidan hiri erraldoi eta zantar hura, nire ikaskide batzuk ederki gozatu bazuten ere; bada andregaia aurkitu eta bertan bizitzen geratu zenik. Horra leku posible bat munduan.

Nik ere izan nuen maiteño bat, baina Gasteizen ego- kitu zitzaidan. Amodioak horrela egiten du jolas gu- rekin; baina abandonatu egin nuen Gasteizen egiten zuen hotza ezagutu nuenean. Haize zakar jeltatua golkotik behera sartzen zen, eta Floridako parkea ia beti zuri egoten zen kasik sanprudentzioak arte! Ga- rai hartan atera zuten "Siberia-Gasteiz" esamoldea ere. Aldaketa klimatikoa lehenxeago etorri balitz! Donostian ere bizitakoa naiz, eta balentria izugarria lortu ere bai: nire idazle soldata txatxuarekin pisu baten alokairua hilero ordaintzea, gauzak nola alda- tu diren ikus dezazuen! Baina Alde Zaharreko pin- txoen prezioak goraka hasi zirenean ulertu nuen hura ere ez zela nire lekua munduan.

Azpeitian egin ditut urte asko, izeba Felik eskuzabal- tasunez utzitako pisu batean. Ama pontekoa nuen. Alarguna zen, eta ia bere semetzat nindukan gaixo- ak, kasu handirik egiten ez banion ere. Bosgarren solairuan zegoen, eta igogailurik ez. Gaztetan ongi, baina adinean aurrera eta ohartu nintzen hura ere ez zela nire lekua. Parrandatik bueltan nire etxeko atea Eiffel Dorrearen punta baino urrunago zegoela iruditzen zitzaidan!

Egun batean Zestoan nenbilela salgai zegoen pisu bat ikusi nuen arte. Igogailua zeukan, eta a zer bis- tak: hasi Akoatik eta Endoiarainoko panoramika zo- ragarria. Eta horri guztiari begira egoteko terraza eder bat. "Hau bai, hau da nire lekua", pentsatu nuen.

Hasieratik etxean sentitu naiz, beste inora joateko gogoa ahazteraino.

pako aristi

aiala etxabe merino

Ane Aranburu Seguro

KOSTA EGITEN ZAIT BATZUETAN ATAL HONETARAKO ELKARRIZKETATU DEZAKEDAN ZESTOARRAK TOPATZEA. HORRELAKE ETAN JABETZEN NAIZ HERRIAN URTE BATZUK BADARAMATZADALA ETA JENDE ASKO EZAGUTZEN DUDALA, BAINA GEHIENEN KASUAN EZ HAIEN BIZITZA ETA IRAGANA. ORAINGOAN, ORDEA, BONBILLA PIZTU ZITZAIDAN ANEREKIN. MIRESTEN DUT BURUAN DABILKIENA EGITERA AUSARTZEN DEN JENDEA, PROIEKTUAK MARTXAN JARTZEN DITUENA, SALTSETAN SARTZEN DENA. ETA ANE BADA HORIETAKO BAT.

Niretzat Aizarnako Ane zara, baina Azpeitiko zara. Nola iristen da Aizarnara 20 urteko azpeitiar bat?

Tira, hemeretzi urte dira Aizarnara etorri nintzela eta 39 urte ditut, beraz, Aizarnako Ane izenez ezagutzeko adina denbora badaramat hemen! (Barrez). Ikasle pisan bizi nintzen Eskoriatzan, Unibertsitateko ikasketak egiten ari nintzen bitartean eta ordurako Jonekin nengibilen. Alkateko etxea, Jonekin familiako etxea berri zuten urte batzuk lehenago eta sei etxebizitza atera zituzten; horietako bat Jonekin hartu zuena. Nik garbi neukan amaren etxera ez nuela itzuli nahi, behin etxetik kanpora bizitzen ikasita, beraz, Aizarnara!

Zorte kontua ere izan zen, orduan.

Bai, beno, etxearen berri hori parean tokatu zen, bai, baina ez nintzen batere disgustura etorri. Landa eremua asko gustatu izan zait beti. Ni kaletarra izanagatik ere, aita-amak baserrikoak dira (Atzerrekakoa bat eta Beizamakoa bestea), nahiz eta fabrikara joan ziren gero lanera; eta umetatik izan dut bi baserriekin harremana.

Handitik txikira lekualdatu zinen.

Herri txikiko bizimodua gustatzen zait. Denetik dago! Lasaitasuna, patxada... Gauza batzuk oso komunitatean egin beharra tokatzen da. Herri-hiri bateko zerbitzuak ez dago eta gehiago elkartzeko beharra tokatzen da. Ni gustatzen zait, baina eskatzen du gehiago harreman du beharra. Herri-hirian inbertsonalagoa da. Aizarnan zerbait egiteko gogo badago elkartzeko, pentsatu, bilatu... egin behar da.

Aizarnan nahiko erraz sartu nintzen. Egia da Jon bertakoa izanda desberdina dela. Ez genuen biok Aizarnan aterrizatu, eta hor alde handia dago. Jonekin bazuen ingurua. Eta ni ere ez dut uste lotsatia naizenik.

Gustatzen zaizkit herri txikietako harreman horiek, adin nahasketa hori... Eta eskola buelta horretan ere egiten duzu beste inguru bat gero umekin.



Eskola bada herri txiki baten pizgarri.

Bai, pizgarri den neurrian buruhauste edo mamu ere bai. Alegia, beti da beldur moduko bat edo kezka iturri umeen jaiotza eta matrikulazio berriena. Ni etorri nintzenetik hala da. Azken etxeak egin zirenean 12 bizitza egin ziren, eta hor urte politak egon dira; baina harrezkero ez da etxebizitza proiektu gehiago egon eta ikusten da hor badatorrela hutsunea. Ez momentu honetan agian, baina... Aurten ez da inor hasi 2 urteko gelan, adibidez. Hezkuntzatik badago presio moduko bat: "matrikulaziorik ezean...". Eta hori Aizarnarentzat gakoetako bat da. Bizitza handia galduko luke eskolarik gabe.

Etxe berriak egitea izan liteke hartu beharreko neurri bat?

Modu ordenatu eta errespetuzko batean egingo badira, uste dut baietz. Ez dit beldurrik ematen, proiektua Aizarnarako jasagarria bada. Zein da beste aukera, postala ukitu gabe mantentzea? Horrek ez du irtenbiderik ekarriko. Ez dut esaten izugarritzko etxe pilak egitea, baina lauzpabost etxebizitza berri?

Begiratu Udal berdineko bi auzoei: batean ehunka etxe eta bestean zero. Hor ikusten da merkatuaren indarra. Eta, akaso, agian horretan ez gara ari asmatzen politike-tan. Eta agian ez da hain sinplea izango, baina zerbaiten beharra badago.

Herri txikiak bizirik behar ditugu, apustua egin behar dela uste dut. Badakit ez dela merkatuari begira apusturik gozoena; baina hor ikusten da zerk agintzen duen, zer gailentzen den. Ez al da tokatzen fitxa batzuk mugitzea igual?

Herrian lan eta bizi, zuen leloa izan liteke.

Tira, asmo horrekin ekin genion Ertxin Eko gure proiektuari orain hamaika urte.

“ZUZENKO SALMENTAREKIN GUK NAHI GENUEN GURE PRODUKTUAREN PREZIOAREN JABE IZAN”

Nola gogoratzen duzu hasiera hura?

Jonek ikastaro batzuk egin zituen eta hasi ginen gure proiektua pentsatzen gure aktibitatearen parte bat abeltzaintzara bideratzeko. Lehen pausua Lurgintzatik egin genuen. Formazioa jaso, harremanak egin... Ezagutu genuen Arizkuneko oilategi bat martxan zuen pertsona bat, ekologikoan aritzen zena, pioneroa, Nafarroako EHNE-n ibilitakoa. Haren oilategia ikusi genuen eta zerbait erreala ezagutzeak ere ematen dizu beste bultzada bat.

Garai batean oilategia izandako nabe bat alokatzeko aukera suertatu zitzaigun Aizarnan, ondoko baserritarraren lurremu bat erabiltzeko aukerarekin batera. Behin instalazioak lortuta, aktibitatea martxan jartzeko GazteNek programan sartu zen Jon. Nekazari gazteak instalatzen laguntzeko programa da. Baldintza batzuetara lotzen zara etab., baina inbertsiorako laguntza bat da. Bestela ia ez da bideragarria.

Eta hor iristen dira lehen oiloak Aizarnara.

Seiehun oilo. Kontziente ginen, 600 oilo horiek sartzen genituenetik aste batzuetara seiehun arrautza jasotzen hasiko ginenela egunero. Zuzeneko salmentaren apustua egin nahi genuen. Guk nahi genuen gure produktuaren prezioaren jabe izan. Eta ez pentsa, izan genituen eskaintza batzuk zenbait kate handirenak eta tentatuta ere egon ginen, salmenta kentzen duzu tartetik... baina ezetz esan genuen.

Urki, semea, ordurako jaiota, motxilan hartu eta dendaz denda hasi ginen begira, inguruko denda txikietan ea zer zegoen. Ikusi genuen arrautza ekologikoen falta bazegoela. Beraz, eskaintzak egiten hasi ginen, guk bagenuela arrautza ekologikoa, eramango geniekeela, eta batzuk baiezkoa ematen hasi zitzaizkigun. Gure poza!

Gaur zuen oilategia eta lurrak dituzue. Nola iritsi zarete honaino?

Gureak izango ziren lur eta oilategia geneuzkan beti buruan. Ateak jo eta jo, suertatu zitzaigun bi hektareako partzela erosteko aukera. Guk behar genuen tamainakoa. Pinudi bat zen, malkartsua, dena egiteko, baina gure ilusioa izugarria izan zen.

Hor inbertsio ekonomiko eta emozional handia egin genuen. Eta hortik pixka batera oilategiaren segidako sei hektareako lursail bat erosteko aukera suertatu zitzaigun; baina aktibitate horri lotutako lana ere gehitzea suposatzen zuen horrek, eta birentzako soldata ateratzeko justu!

Ordurako Izeia, alaba ere jaiota, kanpoan lan eginez...

Urte oso politak izan dira e, baina intentsitate handiko garaiak ere bai. Beraz, apustua egin beharra geneukan eta bigarren aldiz GazteNek programara aurkeztea erabaki genuen, oraingoan niretzat. Bost urte ematen dituzte inbertsioak egiteko eta horretan ari gara momentu honetan, enpresan bigarren inkorporazioa egiteko.

► Zer esan nahi du horrek?

Ondoko lurra eskuratuta, ate berriak irekitzeko asmotan hasi ginen. Sagarrekin tentatuta ibili ginen, baina gure lurrak harkaiztsuak dira eta Biolurretik gomendatu ziguten fruitu txikiak izan zitezkeela egokiak. Hortik etorri da ahazien ideia. Aurreko udazken-negua pasa dugu landaketak egiten eta aurretik, uda, lurra egokitzen: lurra goldatu, azufrea bota, ph-a neurtu... 500 landare sartu ditugu eta beste 200 bat dauzkagu sartzeko.

Asmoa da arrautza dibertsifikatzea ahabiarekin eta gure merkatu horretan zabaltzea ahabia freskoan edo marmelada eginda.

Eta norbaitek esan dit proiektua jendeari zabaldu nahi diozuela, edo horrelako zerbait.

Txori txiki asko ibiltzen dira Zestoa! (barrez). Umeei begirako bisitak dauzkagu buruan. Azkena lortutako lursail hori polit-polita da, zoragarria umeekin zerbait egiteko!

Tailerrak, bisitak, eta antzekoak egitea da asmoa, eskoletako umei begira; baina antolaketa pixka bat ere eskatzen du horrek. Mendiko espazioa da eta behar genuen aterpe bat, eguraldi txarra eginez gero babesgune bat. Aterpe horren lehen fasea eginda daukagu eta orain espazioa egokitu (eraldatu gabe, parke artifizialik gabe), umeentzat erakargarri egin eta forma ematea da kontua. Animaliak ere presente nahi ditugu, baina eroso eta segurua izatea nahi dugu, badakigu beldurrak egoten direla... Eta pixka bat pentsatu behar dugu nola eta zer egin.

Sakona Komuntzo etxalde ekologikoan aritu zara azken aldian bisita gidatuak egiten haurrekin, ezta?

Horrek eman dit esperientzia errealak bizi eta gurea antolatzeko ideiak biltzeko aukera. Leku oso polita daukate eta Azpeitiko eskoletatik eskaerak izan dituztenez, ni ibili naiz bisita gidatuak egiten. Zirkuitu bat prestatu genuen, zentzu pixka bat eman elikaduraren inguruan, ekologikoan ibiltzea zer den azalduz, gizakion oinarritzeko beharra dela elikatzea, elikagai batzuk ekarri eta besteak hemen sortzen direla kontatzea...

Nirea horixe da! Landa-eremuan umeekin partekatzea.

**“Nirea horixe da!
Landa-eremuan
umeekin partekatzea”**

Amillubi proiektuan ere buru-belarri zabiltzate.

Ez da gure aktibitatearekin zuzenean lotuta dagoen proiektua, baina sektoreari bultzada bat ematera dator, sektorearen behar batzuei erantzutera (agian oraingoz gehiago nekazaritzari). Biolurren proiektu bat da, gu bazkide gara, eta elkarteari eta sektoreari baliabideak ematen dizkio, dauden beharrei modu kolektibo batean aterabidea emateko aukera irekiz.

Horrelako proiektu bat, etxe ondoan... sartu beharra geneukala sentitzen genuen.

Ordainketa fasean jarraitzen dugu oraindik, baina bitartean hasita gaude aktibitatearekin. Lehen diru-bilketa hartan jaso dugun babes ekonomiko eta emozionala izugarria izan da. Jendea zerbait piztu dio eta orain, kontatzen aritu garen horri bizia ematea tokatzen da, proiektu errealak martxan jartzea. Hasita

gaude formazio saio batzuk egiten, porru landaketei ere ekin diegu, artoa eta babarruna ere bai, hazi mintegiak egin dira Biolurreko nekazariei hazi ekologikoak bermatzeko (alberjina, ilarra, brokolio...), adibidez.

Biolurrek biltzen dituen okinek ere, esaterako, garia erein eta ondoren uzta biltzeko traktoreak sartzeko oso egokiak ikusi dituzte lurrak, eta horretan aritu dira; bertako gari zaharrak berreskuratze asmoarekin batera.

Gehiegi gerturatu ez den jende batek pentsa dezake interes partikularrak daudela hemen.

Interes orokorreko proiektuei bideratutako baliabide bat izango da, Gipuzkoa mailan sektorearen behar batzuei erantzuteko: errelebo falta, lur falta... baina gizarteak ere behar batzuk baditu, elikadura beharra tartean. Eta ez da interes partikularreko proiektu bat. Guk, adibidez, Aizarnan daukagu gure proiektu partikularra eta Biolurreko besteek bereak dituzte. Amillubik behar orokorrei eta kolektiboiei erantzun nahi die.

Lur horrek, gainera, diote badituela ezaugarri indartsuak nekazaritzarako. Zestoa eta Iraeta, Gipuzkoa mailan, oso leku estrategikoan kokatuta daude. Eskualdean hartu du indarra gai honek eta proiektu interesgarriak martxan jarri dira, esaterako, Elikagunea. Kontsumitzaile eta ekoizleak elkartzen dituena. Eskualdea erreferente potente bat izan daiteke. Orain proiektu zehatzak egiten hastea da kontua. Ni oso pertsona errealista naiz eta behar ditut gauza errealak ikusi, teoriatik harago; baina hori ere iritsiko da. Erreferenteak baditugu, Iparaldeko Lurzaindia, kasu. Eta haiek dira gure iparra, bai baitituzte praktika errealak abian.

UEMA aritua zara, euskara irakasle ere bai... Zuen oiloek euskaraz hitz egingo dute!

Gaurko panorama ikusita, akaso oiloek ere *youtuber* izan nahiiko dute laster eta erdaraz mintzo! (barrez). Euskararen egoeraz



galdetzen badidazu, panorama ez da oso polita, ez? Ni izatez nahiko baikorra naiz, baina adituek eta azken ikerketek nahiko jarrera ezkorra dute. Arrazoa zein izan daitekeen ez dakit oso ondo, baina uste dut datozen belaunaldietan jarri behar dugula fokua. Nola erakarri. Ondo egiten ari al gara? Geroz eta kultura nahasketa handiagoa dago, bai, baina nik fokua belaunaldi berri horietan jarriko nuke, belaunaldi berriak ondo hartu behar ditugula, atseginak izan harrera horretan, erakarri.

Pantailen gaia sartu beharko genuke ekuazioan, ezta?

Noski! UEMAn ibili nintzenean, gehien bat umeei begirako lanean, aipatzen zen ze inportantea den haurtzaro txiki edo hasierako urte horietan, kontsumo horiei lotuta, euskara presente egotea bizipen positibo horietan. Emozioa zerk sortzen digu? Kantuak, dantzak, pelikula batek... Bizipen horiek euskaraz bizitze horretan ere jarri behar dugu begia. Emozio positiboen poltsatxo hori euskaraz betetzea. Eta ez erakargarri eta estimulatzailerik den guzti hori erdararekin lotu.

Hizkuntza hegemoniko batzuen ondoan ari gara gure txikitik eta hizkuntza hegemoniko horiek, noski, pantailetan ere hegemonia lortzen dute. Indarra dute. Lortzen dute erakargarritasuna, atentzioa. Abia da bizian eduki batetik bestera salto egiten duen zabor pila, bai, baina gantxoa duena.

Eta guk, euskal komunitate bezala, horren aurrean zer egin dezakegu?

Ba agian guk ere sortu beharko dugu zabor pila pixka bat euskaraz.

Bai?

Ez dakit! (barrez). Oso zaila da. Eduki txukunez bete nahi duzu, baina hori ez da hain erakargarria izango. Dakidana da belaunaldi berriak hor dauzkagula, *influencer* izan nahi dutela eta euskarak behar du hor bere lekua egin. Akaso zabor pilarik handiena egin gabe, baina garaira egokitzen jakin. Behar ditu espektakuluak.

Hitz egiten didazu Mitoaroan egondako baten emoziotik.

Bai! (barrez berriro). Etxeko lauok izan ginen Donostian Zetak ikusten. Horrelako espektakuluak behar ditu euskarak, uste dut, lehen esan dudako emozio positiboen poltsatxo hori betetzeko. Horregatik joan ginen lauok, iruditzen zitzaigulako egon behar genuela. Eta ze gustura! Kaskoak jantzita, *flipada* bat, ez? Baina euskaraz.







Herritar mordoska hasi zen duela mende erdi inguru gau eskoletan euskara ikasten, hitz egiten edota ahoan zerabilten euskara batuan idazten ikasten. Oinarri hartatik, urteetako bilakaeraren ondorioz, AEK sortu zen gerora, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea.

Gutako askok ez genuen gau eskolen garai hura ezagutu, baina ondo gogoan dugu 2001eko urrian Zestoan egin zen AEK eguna. Berezia eta nabarmena izaten zen Industrialdeko estazioko barnetegira Euskal Herriko bazter guztietatik euskara ikastera etortzen zireneko garaia ere. Urte askoan AEK-ko bulegorik bertan ez, baina ikasgela desplazatua izan genuen herrigunean. Ikasle gutxi batzuekin osatutako talde bakarren bat izaten zen. Duela hamar urte egoera asko aldatu zen, onerako, ordea, izan ere, oraintxe beteko du urteurren borobila euskaltegiak.

euskara ehuntzen hamar urtez

EUSKALTEGIKO BULEGOA JARRI AURREKO GARAIA

1999 urte amaieran hasi zen Nora Palmitano euskara teknikari lanetan Udalean. Garai hartako egoera eta giroa gogora ekartzeko elkartu gara berarekin. Badakigu Euskara Zerbitzua sortu zenerako AEK martxan zegoela herrian eta urtero udako barnetegiak egoten zirela geltoki zaharrean. Palmitanok uste du garai hartan klase gehienak alfabetatzekoak zirela, baina orduan ere bazirela euskalduntze taldeak eta asistentzia betetzen zuten ikasleentzat doakoa zela euskara ikastea. Zestoan lan egin aurretik, AEKren Gipuzkoako bulegoan lan egiten zuen Norak eta gogoan du ezaguna zela Zestoako Barnetegiaren ospea, ikasleek oso balorazio onak egiten omen zituzten herriko giroaz eta barnetegiko sukaldeaz. Oroiminez gogoratzen ditu teknikariak Korrika batzorde deiak izaten zuen erantzuna; 40-50 lagun erraz elkartzen ziren. AEK egun hura, historiako guztietatik “onena” izan zela esatera ez da ausartzen, baina bai diru-irabaziak ekarri zituen bakarra izan zela. Hamabietarako arto-irina bukatuta zegoen talo postuan! Teknikariak tonbola gunean egotea tokatu zitzaiola gogoratu du. Muntatzera joan eta “argindarra nondik hartuko dugu?” eta hor agertu omen zitzairen Joxemari Uzkudun kable eta guzti... Eta horrelako asko izan zirela gehitu du egun hartan. Talo-postuan zegoen Eibarko AEK-ko irakasle batek esandakoa ez dauka ahazteko: “Nora, hemen herri osoa dabil lanean!”

IRAKASLE TALDE EGONKORRA HERRIAN

Finantziazioari dagokionez, beste kultur taldeek bezala, AEK-k ere urtero eskatzen zuen dirulaguntza Udalean.



Orduko Euskara Aholku Batzordeak jauzi kualitatibo bat emateko ordua zela iritzi zion eta benetako “euskaltegia” edukitzea merezi zuela Zestoak: irakasle talde egonkorra ziurtatuta eta ahal bazen horietatik bat gutxienez herrikoa izango zena. Ordutik, Zestoako AEK-k Azkoitikoarekin batera Urolako AEK ikasgua osatzen du.

Euskaltegi izaera emateko derrigorrez “bulegoa” jarri behar zen. Udalak altzariak, eta AEK-k telefona, fotokopiagailua, ordenagailuak, ikas-materiala... jarri zituen. Bulego horretan prestatzen dituzte klaseak, ordura arte Azkoititik ekarri behar izaten zituzten fotokopiak!

Euskara teknikariak gaineratu du Udalaren kezka izan dela irakasleek lanaldi eta soldata duina izatea eta irakasleek egiten duten esfortzua ere azpimarratu du; taldeen eta ordutegien puzzlea osatzen udalak ordaindu beharrekoa behar baino gehiago ez handitzeko, ordutegiagatik inor kanpoan ez gelditzeko, ikasleen ezaugarrietara irakasteko era eta materiala egokitzeko, ekintzak herrira zabaltzeko ahalegina, mintzalagun egitasmoa... “

HAMAR URTEAN IKASLE KOPURU BIKOITZA

2015ean eratu zen Zestoako AEK euskaltegia. Garai hartan ez zen irakasle zestoarririk, eta ikasle kopurua ere ez zen azken urteotakoa adinakoa, baina bazen herrian euskararekiko interesa, izan ikastekoa, izan euskaraz bizitzeko ekimenen bueltakoa. Eskolak emateko modua ere bestelakoa zen: talde gutxi, eta autoikaskuntza formatua zen nagusi, banan banako ordu erdiko tutoretzak, nor bere kasako lana eta asteen ordubeteko mintza-saioak taldean, alegia. 2017an hasi zen lanean Nerea Odriozola, herrikidea, eta hortik aurrera batu zitzaizkion egun lankide dituen Eli Agirre eta Ainhoa Alberdi azpeitiarrak. Urteen poderioz, egoera asko aldatu da, eta oso pozik daude emaitzarekin. Ikasle kopurua bikoizteaz gain, talde kopurua ere nabarmen igo da. Lehen urteetan 30 ikasle inguru izaten zituzten; egun, 50-60 ikasle artean hurbiltzen dira euskaltegira. Taldetxoak osatzea da gehien kostatzen zaiena, “herri txikia izanik, lanak izaten ditugu taldeak ateratzeko

eskatzen diguten ratioetara iristen. Iraila zaila izaten da, baina normalean asmatzen dugu irtenbideren bat ematen, eta ikastalde politak ateratzen dira” diote irakasleek taldeak sortze lan horretan bete-betean dauden garaian. Ikasleen profilari dagokionez ere aldatu egin dela diote: “Euskara eskolei ekin genienetik beti izan ditugu hasiberrien eskolak, etorkinenak bereziki, baina baita herritar euskaldunak ere, euskara hobetzeko edo alfabetatzeko asmotan gerturatuta. Azken urteotan, berriz, gorakada nabaria izan dute egiaztagiri bila etorritako gazteek eta ez hain gazteek, lanerako erraztasunak izateko”.

Dena ez da lan gogorra, ordea. AEKn beti izan dute argi euskarak praktikoa izan behar duela eta erabiltzen ikasi behar dela.

Badaramatzate hiruzpalau urte hilero ekimenak antolatzen, bai herrira begira, bai euskaltegi barruan ere. 2018-2019 ikasturtean, adibidez, Danbolinekin batera, Ardo dastaketa antolatu zuten. Eta, tira, badituzte ohitura bihurtu diren ekimenak ere: rifa, abenduko Santa Engrazirako mendi txangoa, San Blas eta talo tailerrak, hitzaldiak, “Mundua platerean”, dantza saioak... eta, noski, magia poteoa ere bai! Ikasturteari hasiera emateko antolatzen hasi ziren duela bi ikasturte, eta arrakasta izaten du. “Baten bat honezkero ohartuko zen... ikasleak arrantzatzeke ere aprobeztatzen dugu!” aitortu dute.

Kalean mingaina astintzeko, euskaraz eta ondo pasatzeko ekimenak antolatzeaz gain, Mintzalagun egitasmoa ere badute. Mintzalagunen euskaraz eroso aritzen direnak eta euskara hobetu nahi dutenak elkartzen dira. “Aukera polita izaten da: euskara ikasten ari direnek asko eskertzen dute modu informalean herritar batekin elkartzea eta buelta bat emanez edo trago baten bueltan elkarren berri izatea, euskaraz. Askok lagun ere bihurtu dira!” gehitu dute irakasleek.

Ez dago zalantzarik, beraz, balantzea ona dela, urte guzti hauetakoa aintzat hartuz gero. Azken hiruzpalau urteotan irakasleak egonkortu egin dira euskaltegian, eta ekimenen bitartez ikasleei herriratzen laguntzea ere lortzen dute, baita herritarrei euskaltegia hurbiltzea ere! Ikusgarritasun gehiago dute, eta, jakina, horrek eragina izan du ikasle kopuruaren gorakadan. Horrez gain, Zestoako Udalak urteetan egin duen eta egiten duen ahalegin ekonomikoa azpimarratu dute, hari esker euskara doan ikas baitaiteke herrian. Norabide horretan jarraituko dutela lanean diote datozen ikasturteetan ere, Zestoan euskaraz bizitzen jarrai dezagun.

jone bergara



EUSKARA - IKASTAROAK • CURSOS DE EUSKERA



*Euskara eroso ikasi eta bizi
nahi baduzu, neurri-
neurritako ikastaroak ditugu:*

Hasiera maila / nivel inicial:

Goizez eta arratsaldez /
mañanas y tardes

A2 maila:

Goizez eta arratsaldez

B1 maila:

arratsaldez

B2 maila:

goizez eta arratsaldez

C1 maila

goizez eta arratsaldez

C2 maila:

arratsaldez

**Informazio
gehiago nahi
izanez gero, deitu
edo idatzi:
670 420 048
zestoa@aek.eus**

ZESTOAKO
aek

Aisialdia eta kirola denontzat




Pobreziak sortzen dituen
kalteak edo desabantailak
gutxitzeko.

Haur guztien eskubidea
direlako aisialdia eta
kirola.



Haurren ongizatea gizarte
osoarentzat onura delako.

Herriko haur guztiak osasuntsu
eta zoriontsu nahi ditugulako.



2025 - 2026 ikasturterako diru-laguntzak

Haur eta nerabe guztien osasun eta
garapen maila altuenak dituen herria
nahi dugulako. Beraien beharrak asetu,
beren eskubideak errespetatu, babestu
eta gauzatuko dituen herria eta beren
aukera guztiak garatzeko aukera
emango diena.



HAMAR URTEKO BIDEA DIGITALEAN

2015eko irailaren 3a zen, osteguna. Hotel Blasa zeneko magnoliopean, Kutxabank atarian, aurkeztu genuen Danbolin.eus ataria. Orduraz geroztik hamar urte joan dira, eta gaur, atzera begira jarrita, ilusioz gogoratzen ditugu hasierako une haiek eta geroztik egindako bidea.



Danbolinzulo elkartearen 2000. urtean sortu zen, eta ordurako 15 urte generamatzen aldizkaria kaleratzen. Aurkezpen hartan eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina aterpean irudi eta musikaz giro gutxi emanalditxo egin genuen. Herritarrei etxetik aulkia eta jateko zerbaitei ekartzea eskatu genien, eta pozarren erantzun zuten. Geuk ere giro goxoa sortzeko argi txikiak piztu genituen, eta hala, gaur hartan giroak xarma berezia hartu zuen.

Ordura arte sare sozialetan baino ez genituen zabaltzen gure argazkiak, batez ere Facebooken. 700 jarraitzaile genituen orduan, Zestoarako zenbaki oparoa iruditzen zitzaigun. Gaur egun, 2.500 lagun inguru gara Facebooken, eta 1.700 Instagramen, orduan apenas erabiltzen genuen sarean. Haiek izan ziren webgunera bidean lehen urratsak.



Aldizkaria bere xedea betetzen ari bazen ere, aspalditik geneukan interneten presentzia sendoa izateko gogo. Paperean gai sakonagoak lantzea zen gure asmoa; webgunean, berriz, eguneroko gertakizunei eta herriko kontu txiki baina esanguratsuei tartea eskaintzea. Bi euskarriak elkarrekin uztartzeak Danbolin proiektua indartu eta aberastu zuen.



Garai hartan oso argi geneukan: webguneak herri osoarentzat izan behar zuen, guztion beharrak asetzeko eta guztion artean eraikitzeko tresna. Horregatik azpimarratzen genuen herritarren borondatea ezinbestekoa zela: taldeek informazioa helaraztea, establezimenduek publizitatea jartzea eta Udalak bere laguntza eskaintzea. Horiek guztiak gabe, proiektua ez zen bideragarria izango.

Oier Arregi izan zen lehen arduraduna. Hasieran astean hamar ordu eskaintzen zitzaizkion atariari, baina laster ohartu ginen hori ez zela nahikoa, eta eguneroko dedikazioa bikoiztu behar izan zen. Berak honela idatzi zuen 2015eko ekainean: “Danbolin lehenengo aletik asko aldatu den bezala, komunikabideek ere etengabe bilatzen dituzte bide berriak. Albisteak gero eta azkarrago iristen dira gure etxeetara, eta hori baliatuz, gure asmoa eguneroko erabiltzen ditugun tramankuluetan Danbolinentzat txoko bat eskaintzea da”.

Itsasok Waliñok eman zion sei urtez Oierrek hasitako lanari jarraipena eta azken urteotan, berriz, Ohiana Calparsorok hartu du erreleboa. Zestoa auzo askotako herria izanik, Danbolinek beti jo du garrantzitsutzat auzoetako ordezkariak lantaldean izatea.

Danbolin.eus atariaren lehen hamarkada hegan pasatu da. Herriko zein auzoetako egunerokotasuna lau haizetara zabaltzen jarraitzen dugu, zuei, herritarroiei esker. Eta horregatik, Danbolinek ateak beti izango ditu zabalik, guztiontzat.



VIRGINIA SAENZ DE VITERIK IRABAZI ZUEN LAIAKEKO ARDO JOLASA

Hilaren 4an ospatu zen Laiakek antolatutako Ardo Jolasaren finala, giro ederrean eta parte hartze handiarekin. Guztira 85 lagunek hartu zuten parte jokoan, bi astez martxan egon ondoren. Horietatik 15 lagun sailkatu ziren finalerako, baina azkenik 12 izan ziren hitzorduan lehiatu zirenak.

Finaleko proba, ardo zuri ezberdinen mahats mota asmatzean oinarritu zen, eta irabazlea Virginia Saenz de Viteri izan zen. Horrez gain, parte-hartzaile guztien artean ardo botila bat zozketatu zuten, eta Beatriz Zubiari egokitu zitzaion.



"MARTIN MARTINA ETA GAUEKOAK" AURKEZTU DU AMANCAY GAZTAÑAGAK

Amancay Gaztañaga idazleak "Martin Martina eta gauekoak", trilogiaren azken liburua, aurkeztu zuen irailaren 11n Donostian. Aurkezpenean eta idazketa prozesuan zehar Antxiñe Mendizabal izan du bidelagun, eta bildumaren azaleko ilustrazioak Alain Martínezek egin ditu.

Idazleak ilusio handiarekin hartu zuen unea: «Poz handiarekin erditzen dut gaur liburu hau. Urte batean kristoan bidaia egin du Martin Martinak», azaldu du. Bere esanetan, hau ez da saga bat, baizik eta trilogia: «Istorioak hasiera eta bukaera du. Hirugarrenaz hitz egiten badut, beste biak ere zapuzten ditut».



ZESTOAKO HERRI ESKOLAK HANDITZE LANAK AMAITUTA HASI DU IKASTURTE BERRIA

Zestoako Herri Eskolako eraikin nagusiko handitze lanak amaituta, ikastetxeak ikasturte berria hasi zuen irailaren 10ean, asteazkenean.

Lan hauei esker, eraikinak hiru ikasgela berri eta erabilera anitzeko areto handi bat irabazi ditu. Bigarren pisuan kokatutako ikasgelek liburutegi zaharra askatzea ahalbidetu dute, eta gela hori liburutegi berria bihurtu da. Hirugarren pisuko aretoa, berriz, hiru zatitan bana daiteke horma mugikorren bidez, eta ez da soilik ikastetxeko ikasleen esku egongo: herriko eragileek ere erabiltzeko aukera izango dute. Gainera, lasaitzeko txoko bat sortu dute haurrek emozioak kudeatzeko.

Eskolako zuzendaritzak adierazi du espazio berriek ikasleen hezkuntza kalitatea hobetuko dutela, hezkuntza metodologia berrietara egokitutako azpiegitura direlako.



EAJ-PNVK AMABIRJIN JAIEN BALORAZIOA EGIN DU ETA POSITIBOA IZAN ARREN HOBKUNTZAK ESKATU DITUZTE

Zestoako EAJ-PNVk Amabirjin jaien inguruko balorazioa egin du, eta oro har jaiak "giro egokian eta errespetuz" ospatu direla azpimarratu du. Hori "pozgarria" dela adierazi dute, baina hainbat gabezia ere nabarmendu dituzte, etorkizunean hobekuntzak txertatzeko proposamenekin.

EAJ-PNVk hainbat hutsune aipatu ditu: Txistulari Alardeko koordinazio falta, zezenen desenakajonamenduaren inguruko arazoak, kontzertuen programazio desorekatua, botiloi masiboak eta pankarta ugari. Hala ere, herritarren jarrera eta ekarpenak txalotu dituzte.



[KOMUNITATEA] AIZARNAKO JAIK 2025

Abuztuaren 14tik 18ra ospatu ziren Aizarnako

Amabirjinak. Ohi bezala, Jon Egigurenek jaietan bizitakoaren laburpen txiki bat ekarri digu. Hona hemen bere idatzia:

Urteroko ohiturarekin jarraituz aurtengo Amabirjina jaietara ere gainbegiratu bat egingo diet argazkiekin irudikatuz. Argazkiak ez dute erakusten barruko sentimendurik eta hauxe da arrazoia lerro hauek idazteko, nire inpresioak agerian jarri eta jaietara buruzko nire iritzia pertsonala ematea dut helburua.

Bezpera ilunabarreko 6etan "etxafuegoa" jaurtitzeaz aurtengo haurrak mundura ekarri dituzten gurasoak arduratu ziren. Hortik aurrera ondorengo hiru egunetan herriko plaza oso alaitua ikusi nuen...

[Irakurri osorik gure atarian]



IÑAKI ELORZA ENDOIARRAK KONTXAKO BANDERA IRABAZI DU ORIOREKIN

Hilaren 14an, igandez, Donostiako uretan jokatu zen arraun denboraldiko proba nagusienetakoa, Kontxako Bandera. San Nikolas ontzia nagusitu zen, eta Iñaki Elorza endoiarrak garaipena ospatu ahal izan zuen Orioko taldearekin.

Elorzak bizitza osoa eman du arraunean, nahiz eta azken sei urteotan lehiaketa alde batera utzita izan. Bere ibilbidean Zumaiaiko Telmo Deun eta Santurtziko Itsasoko Ama arraun elkarteetan aritu da, baita Orioko taldearekin ere, 2014tik hasita sei urtez. Aurtengo itzuli da berriz San Nikolas ontzira, eta itzulera borobila izaten ari da zalantzarik gabe.



ITZIAR EZENARRO: "HERRITARRAK IZAN DIRA NIRE INDARRA, ETA HORREGATIK DA HAIN ZAILA AGUR ESATEA"

Itziar Ezenarro (Getaria, 1971) 2014ko urriaren 10ean abiatu zen Lili dendaren gidaritzan. Hamaika urte hauetan, denda izateaz gain, gertutasuna eta konfiantzazko tratua hurbila eskaini duen espazio bihurtu da. Orain, ateak itxeko erabakia hartu duenean, Itziarrek bere ibilbidearen balantzea egin du gurekin, hasierako egunetatik gaur arteko bizipenak nahiz etorkizunari begirako gogoetak partekatuz.

NOLA SORTU ZITZAIZUN HERRIAN DENDA BAT IREKITEKO IDEIA? NOLAKOA IZAN ZEN PROZESUA, EDO NOLA OROITZEN DITUZU GARAI HAIEK?


Denda irekitzeko ideia bat-batean sortu zen. Aurreko lana egun batetik bestera utzi nuen, etorkizunera begira inolako proiekturik gabe, eta garai hartan denbora etxea margotzen, ingelesa ikasten eta Sastarrain inguruan paseatzen igarotzen nuen. Gogoan dut 2014ko urtarilean, Sastarrainerako paseo batean otu zitzaidala aurrez erosita genuen lokal harekin zerbait egin behar genuela. Hasiera batean inbertsio gisa erosi genuen, baina ez genuen argi zertarako. (...)

Erabakia, batez ere, bizimodu aldaketa baten bila hartu nuen. Aurreko lanak estres handia sortzen zidan eta ez nintzen ez familiarekin, ez lagunekin egoten. Dendak aukera eman zidan herrian bertan lan egiteko eta bizitza pertsonalari lehentasuna emateko, batez ere umeei, haiekin denbora gehiago partekatu behar nuela konturatu bainintzen.

NOLA BALORATUKO ZENITUZKE AZKEN HAMAIIKA URTE HAUEK? ZER DA GEHIEN NABARMENDUKO ZENUKEENA?


Balantzea egitean, esango nuke hasiera batean nuen ideia asko aldatu dela urte hauetan. Denda ireki nuenean bertako eta gertuko marken alde apustua egitea zen nire asmoa. Baina denboraren poderioz, ohartu naiz herriko jendearen beharretara egokitu behar nuela; azken batean, bezeroek erabakitzen dute zein norabidetan haziko den denda. Hasieran ez nuen espero gizonezkoen erosketa ohiturak hain indartsuak izatea, eta hala ere, azkenean eurentzako eskaintza zabaldu dut gehien. Sarritan gertatu izan zait gizonezkoak dendan sartzea eta goitik behera erropa berriarekin jantzita irtetea. Horrek egokitzapenaren garrantzia erakutsi dit, hasierako ikuspegia alde batera utzi eta denda herriko jendearen benetako beharrei erantzutera bideratzea. Hortxe egon da nire bilakaera nagusia.

[Irakurri elkarrizketa osorik gure atarian]



Niri, ez-erretzailea naizenez, ondo iruditzen zait. Hala ere, erretzailea izango banintz, us-te dut beste iritzi bat izango nukeela.

ane iruretagoiena
35 urte



Niri terrazetan erretzea ondo iruditzen zait, izan ere, ez da eroso lagunekin zaude-nean izkina batera joan eta aparte erretzea. Hala ere, ulertzen dut zigarroaren keak molestatzeko dienei edo usaina atsegin ez dutenei debeku hau egokia iruditzea.

mireia rodriguez
25 urte



Egia esan, zalan-tzak ditut. Duela gutxi utzi diot erretzeari eta, horregatik, debeku hau gogorra iruditzen zait. Gobernuak bere garaian neurri batean erretzera bultzatu gintuen, eta orain nonahi debekatzen ari dira.


anton korta
65 urte



Erretzaileentzat es-pazio bat egokitzen badute, ondo iruditzen zait; bestela, gaizki.

ramon etxeberría
64 urte

zer iruditzen zaizu tabernetako terrazetan erretzea debekatzea?



■ ondo iruditzen zait
■ gaizki iruditzen zait
■ ez zait axola
■ ez nago ziur



Festetan egindako txikizioetako bat

Pump Trackeko informazio panela konpondu dute



FERREGI
BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi 695 721 015 Isidro Fernandez 690 108 996 Joan Fernandez 667 537 892

IRAILA

26 OSTIRALA

16:30 Odol ematea Alonderoko aretoan. * 17:30 Treba nerabeak. Nerabeentzat tailerra (12-16 urte). Emozioei buruzko oinarritzko ikastaroa, Gaztelekuan.

27 LARUNBATA

40. Xabin Etxaideren omenezko ekitaldia. 9:00etan Gurutzetik Ertxiña mendira irteera

eta 13:00etan Plazatik monolitara kalejira. * Iraetako tren txikia zabalik.

28 IGANDEA

10:30 Akoako Bira mendi lasterketa.

URRIA

02 OSTEGUNA

18:00 Argiolararen Zestoako proiektuaren aurkezpena.

03 OSTIRALA

17:30 Treba nerabeak. Nerabeentzat tailerra (12-16 urte), Alonderoko aretoan. Kuadrilen saltsak: nerabeen harreman sareak.

04 LARUNBATA

19:30 Barre kluba bertso bakarriketak. Nerea Ibarzabal, Andoni Egaña eta Ana Goitiaren eskutik.

05 IGANDEA

18:30 'Heriotzak Eduardo du izena' performancea, Kultur Etxeko aretoan.

06 ASTELEHENA

Ligaxkako pilota partidak Arroabeen.

07 ASTEGUNA

Ligaxkako pilota partidak Arroabeen.

11 LARUNBATA

Txikitasunean Haundi Arroabeen.. Goizean Txepetxa eta bazkal aurretik, herriko trikitilari eta buruhandiak. Herri bazkaria. Ondoren, txinga apustua, erromeria eta DJ gaua. * Jazz kontzertua Portale Kulturgunean, 19:00etan.

12 IGANDEA

15:00etatik 19:00etara puzgarriak Arroagoian.

17 OSTIRALA

19:00 Treba gazteak. Gazteentzat tailerra (17-24 urte), Alonderoko aretoan. Autoezagutza eta ongizate emozionalaren oinarriak: oinarritzko ikastaroa.

18 LARUNBATA

Danbolin 25. urteurren festa. * Iraetako tren txikia zabalik.

23 OSTEGUNA

18:30 AEK-ko magia poteoa Maria Arandiaren eskutik.

24 OSTIRALA

17:00 Treba gazteak. Gazteentzat tailerra (17-24 urte). Stop antsietatea. * Pilmaiquén Mlikota bakarlari argentinarraren kontzertua Portalen.

25 LARUNBATA

Liburu aurkezpen musikatua Lluïsa Etxeberriaren eskutik. * Iraetako tren txikia zabalik.

26 IGANDEA

Arroa bira.

URRIKO AGENDA GAZTELEKUAN:

3. zikloa. 16:30 - 19:00 DBH. 16:00 - 19:30 U2. Gaztelekua ezagutu (3. zikloa). U4. Jolas librea (DBH) U9. Proposamen bilketa (3.zikloa). U10-11. Proposamen bilketa (DBH). U16. Jolas librea (3.zikloa). U17-18. Jolas librea (DBH). U23. Futbolen txapelketa (3.zikloa). U24. Futbolen txapelketa (DBH). U25. Sukaldaritza: kalabaza bizkotxo (DBH). U30. Eskulana: gau beltza (3.zikloa). U31. Gau beltza (DBH).

HAURRENTZAT JOLASAK, BARBANCXO AISIALDI TALDEAREKIN:

-Herrigunean HH: urriak 1, 15 eta 29 (17:00, gaztelekuan).
-Herrigunean LH: urriak 3, 17 eta 31 (17:00, gaztelekuan).
-Aizarnan: urriak 3, 17 eta 31 (17:00, kultur etxean).
-Iraetan: urriak 10 eta 24 (17:00, elkargunean).

TXEPETXA ARROABEKO AISIALDI TALDEA:

U11, 24 eta 31. Elkargunean. HH: 17:00-18:00 eta LH: 18:00-19:00.

KONTAIDAZU IPUIN BAT:

U7 eta U21. 17:30ean, Liburutegian.

*JOSKINTZA

Ikastaroak eskainiko ditu Cristina Sanchezek. Arratsalde izango dira saioak, ordutegi malguarekin. Norbaitek interesa izanez gero, deitu 627 033 231 telf. zenbakira.



KIMUBAT
— GARDEN

Garbi eta dotore!

ILE-APAINDEGI ZERBITZUA

ESKATU HITZORDUA garden@kimubat.eus | 943 15 00 85

Urrestilla bidea z/g · Azpeitia | www.kimubat.eus

Taxi Zesto

9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena

Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portale kalea 1, Behea B · 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

ZESTOAKO SAN JUAN FUNDATZIOA
943 147 019
sjzuzendaritza@gmail.com

harresi

Tlf 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13

ZURE PUBLIZITATEA

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO:
info@danbolin.eus

MGS

Seguros y Reaseguros SA
Mila Aranguren

Tel.: 614 196 483
milagrosaranguren@arranaga@mgs.es

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak



**ARRAINDEGIA
KONTXI**

ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946



943 062 861



Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110



Etixerako osagarriak



943 147 081-647 683 643

UGARTE
burdindegia s.l.

943 147 154

Arropa eta oinetakoak



Edertasuna eta ongizatea

beatriz izeta
943 148 322



680 802 777



Euskadi, auzolana, bien común



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



ZESTOAKO UDALA